

Donostiako Orfeoia eta euskal konpositoreak

(The Orfeon Donostiarra and basque composers)

De las Cuevas Hevia, Carmen
Donostiako Unibertsitate Irakasle Eskola
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia

BIBLID [1137-4470 (2000), 12; 101-121]

Ondorengo artikuluan Donostiako Orfeoiak euskal musikarekiko izandako jarrera berezia azaldu nahi dugu, baita euskal musikagile eta oro har euskal kulturarekin izan duen jarrera berezia ere. Hori dela eta, Donostiako Orfeoiak lan - dutako ohiko euskal errepertorioa aurkezten dugu bere bilakaera artistikoa kontutan hartuz. Errepertoriaz gain, Orfeoiak antolatutako konposizio lehiaketak aipatzen ditugu horiek ere zerikusia izan zutelako euskal kultura eta euskal musika - gileekin.

Giltz-Hitzak: Koru elkarteak. Errepertorioa.

En el presente artículo se quiere mostrar la especial actitud que el Orfeón Donostiarra ha tenido con respecto a la música vasca, así como la especial relación que ha mantenido con los compositores vascos y con la cultura vasca en general. Por esta razón se ha tomado como referente el repertorio habitual trabajado por el Orfeón a lo largo de sus diferentes etapas artísticas. También se hace referencia a los concursos de composición promovidos por el Orfeón por la especial relación que estos concursos tuvieron con la cultura vasca y con los compositores vascos.

Palabras Clave: Asociaciones Corales. Repertorio.

Avec le travail qu'on montre ici on veut présenter la relation entre l'Orféon Donostiarra et la musique basque. Par cette relation l'Orfeon Dotiarra a vécu au long de son histoire une très speciale relation avec les compositeurs basques. Pour tout ça on a pris comme référence le repertoire habituel de l'Orfeon selon les diferentes etapes artistiques. Aussi on fait référence aux concours de composition promus para cette corale par la relation qu'ils ont eu avec les com - positores basques et la culture du Pays Basque.

Mots Clés: Associations Chorales. Répertoire.

SARRERA

1896. urtean Donostiako Orfeoia sortu zen. Zenbait musikazale eta euskal kulturzale bildu zen, Euskal Herriko musika bereziki landu eta zabaldu nahian, Norberto Luzuriagaren zuzendaritzapean. 1896ko uztailaren 7an, Arrasateko Euskal jaietan egin zuten beren lehenengo kontzertua, eta aurkeztutako programan euskal folkloreko lanak bakarrik kantatu zituzten. Errepertorio honek, Donostiako Orfeoiaren berezitasuna markatu zuen. Garai hartan Donostiako hirian aritzen ziren eta arituak ziren beste abesbatzek Europa aldean modan ziren beste lan mota batzuk kantatzen baitzituzten. Sorrera momentuan izandako jarrera honi esker, Donostiako Orfeoiak beti izan du euskal musika lan ugari bere ohiko errepertorioan, bere historian zehar.

Ondorengo artikuluan Donostiako Orfeoiak izandako izaera artistiko berezi hau azaldu nahi dugu, abesbatz honetan gertatutako etapa artistiko ezberdinen arabera:

1. Luzuriaga maisuarena 1896-1899
2. Oñate maisuarena 1900-1901
3. Esnaola maisuarena 1902-1929
4. Gorostidi maisuarena 1930-1968
5. Ayestaran maisuarena 1969-1986
6. Sainz maisuarena 1987tik gaur egun arte.

DONOSTIAKO ORFEOIAREN SORRERA

Donostiako Orfeoia euskal musika berreskuratzeko eta lantzeko gogoarekin sortu zen bereziki. Hortaz bere helburu nagusia bere Arautegi Berriaren 1. artikuluan zera adierazi zuen:

ORFEON DONOSTIARRA Artículo 1º de su “Reglamento Nuevo” (1900. ekainak 22an gobernazioari bidalita. Donostia, 1900. uztailak 26an gobernadoreak onartua):

“Artº 1º. Esta Sociedad, fundada el 17 de diciembre de 1896, tiene por objeto primordial, el fomento y propagación de la música vascongada por todos los medios que estén a su alcance,...”

Artikulu honetan esaten denez, xede horiek Donostiako Orfeoiaren aurretik, Donostian eta Euskal Herrian sortutako abesbatzen helburuekin konparatzen baditugu, ezberdinak direla ikus dezakegu:

ORFEON EASONENSE. (Santesteban Maisuak 1866 urtean sortua):

“ Artículo 1º. Se crea una Sociedad coral, bajo el título ‘EL Orfeón Easonense’ cuya base fundamental es la propagación de la música vocal”¹

SOCIEDAD CORAL DE BILBAO, (1866ko maiatzak 1.an sortua):

“Artículo 1º. La Sociedad Coral de Bilbao,...tiene por objeto el cultivo de la música en general, y muy especialmente el de la música vocal”²

1. *Reglamento de El Orfeón Easonense*, San Sebastián 9 de Enero de 1871

2. Estatutos y Reglamento General Interior de la Sociedad Coral de Bilbao. 1907 in “*La Sociedad Coral de Bilbao en el contexto del Movimiento Coral Europeo (1850-1936)*”, Nagore, M., Doktoretza-Tesia, Valladolideko Unib. (1993), 428 or.

1901. urtean Donostiako Orfeoiak ohorezko lehendakari bat bilatzen duenean, Antonio Arzac kazetaria, euskal kultur ekintzen bultzatzaile ospetsua izendatzen dute:

“ORFEON DONOSTIARRA. Según nuestros informes el Orfeón Donostiarra que ha quedado reorganizado bajo la base de los coros dirigidos por los señores Oñate y Luzuriaga, constituyendo ya una buena masa coral de setenta a ochenta socios, ha ofrecido la presidencia honoraria al ilustrado vascofílo y apreciable convecino nuestro D. Antonio Arzac.”³

Hori guztia dela eta, azpimarratzekoa da, Donostiako Orfeoiaren berezitasuna euskal musikarekiko. Berezitasun hau Orfeoiak bere historian zehar landutako errepertorioan betidanik, eta gaur egun ere, esan dezakegu.

DONOSTIAKO ORFEOIA ETA BERE EUSKAL ERREPERTORIOA

Ondorengo berrietan, Donostiako Orfeoiaren lehenengo emanaldietako programak azaltzen ditugu:

“El Orfeón (Donostiarra) cantó con exquisita delicadeza y afinación varios aires euskaros, entre los que figuraban el Ume eder bat, Goizeko Izarra, Boga-Boga, Illunabara, unos Coros Suecos con letra bascongada y el Gernikako Arbola”⁴

“FUNCION BENEFICA. Esta noche, a las ocho, se verificará en el coliseo de la calle Mayor el festival patrocinado por el consistorio de Juegos Florales Euskaros de esta ciudad...”

Programa:

“Karidade”, coro por el Orfeón Donostiarra, M. Oñate

“Festará” y “Goizeko Izarra” coros por el Orfeón Donostiarra.”⁵

“FIESTA EUSKARA. La noche del 21 del corriente se verificará en el teatro Principal la fiesta euskara organizada por el Consistorio de Juegos Florales bajo el siguiente programa:

‘Mariya’ coro vascofrancés por el Orfeón Donostiarra, J. Santesteban.

‘Eztilargi’ zortziko cantado por el Sr. Flores, con acompañamiento de piano, M. Oñate

‘Errementarisaká’. cantata euskara por el Orfeón, J. Urtubi

‘Lartaun’, coro vascongado premiado en el concurso de Oyarzun, por el Orfeón, M. Oñate y P. M. Otaño...”⁶

Donostiako Orfeoa sortu baino lehen, Donostiako Sociedad Coral-a aritzen zen hiriko abesbatza bezala. Abesbatza honen sorrera, berezia izan zen.

Euskal Herriko musika sustatu nahian eta European orfeoi mugimendua kontutan harturik, Donostiako Udalak 1885. urtean nazioarteko orfeoi txapelketa iragarri zuen. Ekitaldi honetarako 2000 erreale eskaini zituen laguntza gisa Donostiako Sociedad Coral abesbatza sortzeko.

3. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 5.600 zka, 1901/1/3, 2/3.

4. *Euskal-Erria, Revista Bascongada*. San Sebastián, 1896 uztailak 10. - 576 zka, 6 or.

5. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 4.144 zka, 1896/12/21, 1/6.

6. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 4.499 zka, 1897/12/19, 1/5.

Sociedad Coral-aren eta Donostiako Orfeoiaren errepertorioekin konparazioa eginez, Orfeoiak aurkezten duen errepertorioa murriztuagoa izan arren, euskal konposizioak nagusi dira, agerian dago:

Donostiako Sociedad Coral	Donostiako Orfeoa
<i>El Rhin - Kucken</i>	<i>¡Oh ! Euskalerrri maitia - Sarriegui</i>
<i>Coro conjurados - Meyerbeer</i>	<i>Valentziko Negarra - Letamendia</i> ¹⁰
<i>Le Songe D'une Nuit D'ete - Thomas</i>	<i>Zortzico</i> ¹¹
<i>Coros Suecos - Sffmanim</i> ⁷	<i>Pasa-Calle La Coral - Luzuriaga</i> ¹²
<i>En el Bosque - Kucken</i>	<i>Inchauspeko Alhaba - Santesteban</i>
<i>En La Carcel - Zarzuela</i>	<i>Adios euskalerrriari - Iparraguirre</i> ⁸
<i>Coro de Locos De Jugar Con Fuego</i>	<i>Charmagarriya zera - Santesteban</i> ¹³
<i>El Vapor - Thomas</i>	
<i>Coro soldados Fausto - Gounod</i>	
<i>El Rhin - Thomas</i>	
<i>Serenata del tambor - Paliard</i> ⁸	
<i>El regreso del marino - Monasterio</i>	
<i>La orgia - Rossini</i> ⁹	
<i>Los Esclavos</i>	
<i>La Mascarita - Llanos</i>	

Bilboko Sociedad Coral-arekin eta garai bereko Orfeón Pamplonés-arekin konparatuz, zenbait euskal konposizio bat datoz, baina Donostiako Orfeoiak beti garrantzi gehiago ematen dio euskal musikari beste konposizioei baino, bereziki bere lehenengo emanaldietan, 1896-1901 urteetan zehar.

7. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1887/10/15. (2/4//3/1) or.

8. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1887/3/30. 2/4 or.

9. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1887/5/13. 3/1 or.

10. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1887/11/20. 1.052 zka. 3/1 or.

11. El Eco De San Sebastián. Diario Liberal Vascongado. 1888/08/31. 1.751 zka. 2/1-2 or.

12. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1887/5/21. 869 zka. 3/1 or.

13. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano. 1886/12/29. 726 zka. 2/4 or.

EUSKAL MUSIKA LANEN ESTREINALDIAK DONOSTIAKO ORFEOIAREN ETAPA ARTISTIKO EZBERDINETAN

1896-1899 : LUZURIAGA MAISUAREN ETAPA

1. Taula

Donostiako Orfeoiak lehen aldiz emandako euskal musika lanak Luzuriaga maisuaren etapan

IPARRAGUIRRE	GERNIKAKO ARBOLA	1896
OÑATE	KARIDADE	1896
PENDIENTE	GOIZEKO IZARRA	1896
POPULAR	BOGA BOGA	1896
SANTESTEBAN	CHARMAGARRIYA	1896
SANTESTEBAN	FESTARA	1896
SANTESTEBAN	GOIZEKO IZARRA	1896
SANTESTEBAN	UME EDER BAT	1896
SARRIEGUI	ILLUNABARRA	1896
BRULL	JOTA NABARRA	1897
ESLAVA	SALVE	1897
ESLAVA	TE DEUM	1897
OÑATE	EZTILARGI	1897
OÑATE	LARTAUN AGUR OIARTZUARRAK	1897
SANTESTEBAN	EZKONBERRIAK	1897
SANTESTEBAN	INCHAUSPEKO ALABA	1897
SANTESTEBAN	MARIYA	1897
URTUBI	ERREMENTARISAKA	1897
ZABALA	LAURAK BAT	1897
OÑATE	IZIAR	1898
ZABALA	KANTARITALDE DONOSTIARRARI	1898
ZAPIRAIN	CHANTON PIPERRI	1898

C. de las Cuevasek egina 1996. urtean

Etapa honetan, sorrerarena izateagatik, euskal musika bakarrik landu zen, Orfeoiaren arautegian azaltzen den helburu nagusia jarraituz.

Norberto Luzuriaga (Donostian jaioa eta 1907. urtean han bertan hil zen¹⁴). Maisu honen musika heziketari buruz, zenbait berri jaso dugu Udal Musika Eskolako Artxibategiko 1883-84

14. *Euskal - Erria. Revista Vascongada*. Tº LXVI. Donostian, 1912. martxoak 30, 1.053 zka: 'Norberto Luzuriaga il zan 1907ko epaillaren 18an'

urteetako paperetan. Datu horietan Norberto Luzuriaga jauna, Sarriegi maisuaren solfeo-klaseetan (helduen klaseetan) eta Juan Hernández Luzuriaga turuta irakaslearekin, azaltzen da¹⁵.

Donostiako musika giroan, beti tartean zen, bereziki gizonezko abesbatza taldeetan:

“Lagun artian kantarik egin biar bazan ura zan beti zuzendari”¹⁶

Donostiako Orfeoia sortu baino lehen, Donostiako Sociedad Coral-ean, Angel Sáinz maisuarekin batera, zuzendaritza artistikoan aritu zen, 1886an dimisioa aurkeztu arte.

Musika lanak eta idazlanak egin zituen. Instrumentuetarako Jose de Umarani¹⁷ eskainitako “Atoz” (1885) partituraren egilea dugu. Eta ez bakarrik mugika arloan, 1888ko Euskal lore-jokuetan euskaraz idatzitako lan batengatik akzesita ere lortu zuen¹⁸.

1899-1901: OÑATE MAISUAREN ETAPA

2. Taula

Donostiako Orfeoiak lehen aldiz emandako euskal musika lanak Oñate maisuaren etapan

SANTESTEBAN	CANTATA	1900
SARRIEGUI	AITA PELLO	1900
GORRITI	MISERERE	1901
HERNANDEZ	MISA	1901
TRUEBA	MISA	1901

C. de las Cuevas-ek eginga 1996 urtean

Miguel Oñate (Donostia 1868-Donostia 1941).

Oñate maisuaren musika heziketa, aurreneko Orfeoiko zuzendariarena baino sakonagoa izan zen. Donostiako udalak beka bat eman zion, Madrilgo Kontserbatorioan ikasteko:

“La corporación municipal ha acordado prorrogar por un año más la pensión que en anteriores ejercicios había concedido a D. Miguel Oñate, para ayuda de sus gastos en los estudios del arte musicales.”¹⁹

1899ko ekainaren 24an Donostiako Orfeoiko zuzendaritza batzarrak zuzendari bezala onartu zuen. Bere programak abesbatzaren errepertorioarako konplikatukoak ziren aurreneko etapan Luzuriagak proposatutakoekin konparatuz:

15. Tellechea Idigoras (1992), Academia municipal de música. Sus orígenes (1879), Donostia-San Sebastián: Inst. Dr. Camino, 129 eta 138 or. Las calificaciones de solfeo eran de aplicación *buena* y comportamiento *bueno*, mientras que las de cornetín eran de aplicación *mucha* y el comportamiento *esmerado*.

16. *Euskal - Erría*, 1.053 zka, art. cit.

17. “¡Atoz!”, *Euskal Erría*. Revista Bascongada, 1885 2. seiñilekoa, 51 or. eta hur.

18. “Miscelánea”, *Euskal Erría*. Revista Bascongada, 1888, 1. seiñilekoa, 61 or.

19. “Miscelánea”, *Euskal Erría*. Revista Bascongada, 1886, 2. seiñilekoa, 127 or.

Actuación del Orfeón Donostiarra en los oficios de Semana Santa:

“EL ORFEON DONOSTIARRA. En las funciones religiosas que en la próxima Semana Santa se celebrarán en la parroquia de Santa María, tomará parte la citada masa coral, que ha sido reforzada con un coro de tiple formado por quince entusiastas jóvenes.

El Miércoles Santo cantará el célebre Miserere a tres voces, tiple, tenor y bajo, del inmortal maestro don Felipe Gorriti, con acompañamiento de orquesta y órgano, cuya obra ha sido instrumentada para orquesta por el notable profesor don Miguel Oñate, director del orfeón, en honor de su maestro predilecto, el finado señor Gorriti y con objeto de rendirle un pequeño tributo de cariño.”²⁰

Sarriegiren “*Aita Pello*” izenburuko opera ere landu zuten:

“ENSAYOS. El orfeón donostiarra ensayará esta noche a las nueve con orquesta la ópera vasca ‘Aita Pello’ en el salón teatro de Bellas Artes.”²¹

“A capella”ko obrak, folklorekoak hain zuzen, gero eta gutxiago lantzen ditu, oratorio motako lanen alde. Orfeoiko partaideek eta bereziki Luzuriaga maisuak, errepertorio eta estilo aldaketa ez dute oso gustukoa, eta horregatik gero eta gutxiago azaltzen dira ensaioretara, lanak prestatzera. Egoera honek istilu batzuk sortzen ditu eta Luzuriagak beste zenbait orfeoiariek in alde egiten du orfeoitik.

Oñate maisuak, musiko profesionala zenez, beste lan batzu idatzi zituen:

Himno a Eibar, korua, Marraganek idatzitako letrarekin; *Amoriyo Firmia*, zarzuela, Uran-garen letrarekin; *Ezcaray*, pasodoblea; *Paso Honroso de D Suero de Quiñones* 1900. urteko ihauterietako desfilerako.

1902-1929: ESNAOLA MAISUAREN ETAPA

Beste etapa guztien artean, Donostiako Orfeoiaren errepertorioarentzat, esanguratsuen dugu hau. Esnaola maisuaren lanerako gaitasuna, eta berak zeukan zuzentzeko erari esker, Orfeioa guztiz eraldatu zen. Errepertorioa zabaldu zuen, polifonia eta folkloretik hasita, orfeoientzako lanak landuz (lehiaketetan parte hartzeko). Oratorio, sinfoniko-koral eta opera lanak ere sartu zituen ohiko errepertorioan.

Esnaola maisuak bide hau jarraituz, “a capella” moduko obrak ahaztu gabe, instrumentuz landutako obrak kantatzeko prestatu zuen Orfeioa. Honela errepertorioa zabaldu zuen, beti ere, Orfeoiak euskal musikarekiko izandako jarrera mantenduz.

20. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 5677 zka, 21/3/1901, 1/6.

21. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 5260 zka, 25/1/1900, 2/1.

3. Taula

Donostiako Orfeoiak lehen aldiz emandako euskal musika lanak Esnaola maisuaren etapan

MOCOROA	EGUN SENTIYA	1902
RETANA	AIRES VASCOS	1902
RETANA	LAS TRES	1902
ARIN	PRAISKU CHOMIN	1903
AZKUE	ARRANTZALIAK	1903
MOCOROA	SORGUIN DANTZA	1903
SANTESTEBAN	NERE MAITIARENTZAT	1903
SARRIEGUI	FESTARA	1903
MOCOROA	JUDICA DOMINE	1904
RETANA	AY ORI BEGUI EDERRA	1904
RETANA	JOTA ARAGONESA	1904
RODOREDA-ARTOLA	DONOSTIARRAK BETI	1904
SANTESTEBAN	NERE ANDREA	1904
SARRIEGUI	JUANA VICHENTA OLAVE	1904
ZABALA	LA CAZA DEL CORSARIO	1904
ARIN	FANTASIA AIRES VASCOS	1905
SARRIEGUI	EUSKAL BILLERA	1905
SARRIEGUI	MARCHA CALDEREROS	1905
AGESTA	NERE ANDREA	1906
ARIN	AY MADALEN	1906
ARIN	AZARI DANTZA	1906
ARIN	CHACOLIÑ	1906
ARIN	POTPOURRI AIRES VASCONGADOS	1906
BOROBIA	SALVE REGINA	1906
ZAPIRAIN	LA DAMA DE AMBOTO	1906
AGESTA	MENDI TARTEAN	1907
ARRIETA	MARINA	1907
ESNAOLA	PRAISHKU	1907
USANDIZAGA	RAPSODIA VASCO FRANCESA	1907
ARIN	RAPSODIA VASCONGADA	1908
ESNAOLA	EUSKAL SALCHA	1908
RECONDO	KU KU	1908
BUSCA SAGASTIZABAL	AUSENCIAS Y ANHELOS	1909
USANDIZAGA	AVE MARIA	1909
AGUIRRE	A BILBAO	1910
ESNAOLA	GABON	1910

ESNAOLA	LOA LOA	1910
ESNAOLA	NERE ANDREA	1910
ESNAOLA	PELLO JOSHEPE	1910
ESNAOLA	RAPSODIA VASCONGADA	1910
GABIOLA	KIRIE	1910
RETANA	SUITE VASCA	1910
USANDIZAGA	EGUNTHO BATEZ	1910
USANDIZAGA	ORMACHULO	1910
USANDIZAGA	MENDI MENDIYAN	1911
ESNAOLA	DOS BERCEUSES	1912
OTAÑO	SUITE VASCA	1912
RETANA	RONDALLA ARAGONESA	1912
USANDIZAGA	UMEZURTZA	1912
COLIN-DECREPT	MAITENA	1913
DONOSTIA	CUATRO CANCIONES POPULARES	1913
GURIDI	SEIS CANTOS VASCOS	1913
OTAÑO	NEGRA SOMBRA	1913
OTAÑO	PLEGARIA A LA VIRGEN	1913
USANDIZAGA	HIMNO CENTENARIO	1913
DONOSTIA	ARIÑETAN	1914
DONOSTIA	EUSKALDUNAK	1914
GURIDI	ALDAPEKO	1914
GURIDI	MAITASUN ATSEKABEA ²²	1914
USANDIZAGA	LAS GOLONDRINAS	1914
DONOSTIA	CANTOS VASCOS	1915
ESNAOLA	SALVE	1915
ARREGUI	EL LOBO CIEGO	1916
COTARELO	MAYO GALAN	1916
DONOSTIA	IRU TXITO	1916
GURIDI	AMATXO	1916
GURIDI	GOIKO MENDIYAN ²³	1916
GURIDI	MATZAREN ORPOTIK	1916
GURIDI	SAN JUAN ANTE PORTALETAN	1916
GURIDI	TXERU	1916
OTAÑO	OTOITZA	1916

22. Esnaola, Gorostidi, eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

23. Esnaola, Gorostidi, eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

USANDIZAGA	CANTOS VASCOS	1916
USANDIZAGA	TXORIÑUA NORA UA	1916
DONOSTIA	OIX TXINDORRAREN ERIOTZA	1917
DONOSTIA	OXUA	1917
BORDES	ENE MAITIA	1918
DONOSTIA	BORTIAN AHUZKI	1918
GURIDI	IRU ERREGE	1918
GURIDI	TXORI URRE TXINDORRA	1918
MOCOROA	ILUNABARRA	1918
USANDIZAGA	LA LLAMA	1918
ALMANDOZ	ITUNA	1919
AZKUE	TXALOPIN TXALO	1919
DONOSTIA	ARRATS ABESTIA	1919
DONOSTIA	NOCHE DE INVIERNO	1919
DONOSTIA	PASCUA FLORIDA	1919
GURIDI	DIA DE CAMPO	1919
GURIDI	EL PRINCIPE TRISTE	1919
ZAPIRAIN	SALVE	1919
ALBERDI	DIN DAN BOLERAN	1920
ALMANDOZ	BETI DUK ON	1920
ALMANDOZ	GOIZIAN ON	1920
DONOSTIA	OI BETHLEEM	1920
ESNAOLA	ADIYO	1920
ESNAOLA	DEUN AGEDA ²⁴	1920
ESNAOLA	NESKA ZARRA	1920
RAVEL	DAPHNIS ET CHLOE	1920
USANDIZAGA	AGUR MIREN	1920
USANDIZAGA	PLEGARIA	1920
USANDIZAGA	TRINGULUNTREN	1920
USANDIZAGA R	ITZAYA	1920
USANDIZAGA R	LO, LO	1920
ALMANDOZ	GAU EZKILLA	1921
ALMANDOZ	OI EDURNETXO MAITIA	1921
GURIDI	AKERRA IKUSI DEGU ²⁵	1921
GURIDI	ATOR ATOR MUTIL	1921

24. Gorostidi eta Ayestaran maisuek grabatu dute abesti hau.

25. Esnaola, Gorostidi, Ayestaran eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

GURIDI	BEÑAT MARDO ABESLARIYA	1921
GURIDI	NI EZ NAIZ SOMORRUA	1921
PENDIENTE	ATZO TUN TUN	1921
ESNAOLA	USO CHURIYA	1922
RAVEL	TROIS BEAUX OISEAUX DU PARADIS ZERUKO IRU TXORI POLIT	1922
DONOSTIA	EL RUISEÑOR	1923
ESNAOLA	DRINGILIN DRON ²⁶	1923
OTAÑO	LA MOLINERA	1923
GURIDI	MISA	1924
IRIARTE	DONIBANEKO IRIA	1924
OTAÑO	CANTATIBUS ORGANIS	1924
SOROZABAL	ARROSA LILIA	1924
SOROZABAL	BENTARA NOA	1924
SOROZABAL	DOS LIEDER: LA DERNIERE FEUILLE Y RONDEL PRINTANIER	1924
SOROZABAL	SUITE VASCA	1924
UGARTE	DONIBANEKO IRIA	1924
GOICOECHEA	AVE MARIA	1925
OTAÑO	A LA ROMERIA	1925
OTAÑO	IMPRESIONES DE LA PRADERA	1925
OTAÑO	VUELTA DE LA ROMERIA	1925
SOROZABAL	BUBA ÑIÑA	1925
SOROZABAL	PREGON VASCO	1925
BUSCA SAGASTIZABAL	BI EUSKO ABESTI ²⁷	1926
BUSCA SAGASTIZABAL	DOS CANCIONES GALLEGAS	1926
ESNAOLA	AMAK EZKONDU NINDUEN	1926
ESNAOLA	ARTZAI TXIRULA	1926
ESNAOLA	EUSKO IZKUNTZA ²⁸	1926
SOROZABAL	KALEZ KALE	1926
SOROZABAL	KUKU BAT DUT	1926
URTEAGA	SALVE REGINA	1926
LARREGLA	NAVARRA SIEMPRE PALANTE	1927
SOROZABAL	ATZO ATZO	1927
SOROZABAL	NAHIZU YAYIN	1927

26. Esnaola eta Ayestaran maisuek grabatu dute abesti hau.

27. Gorostidi eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

28. Gorostidi eta Ayestaran maisuek grabatu dute abesti hau.

ZUBIZARRETA	AMA BEGIRA ZAZU ²⁹	1928
ESNAOLA	MATXINTXO	1928
SOROZABAL	BASERRITARRA	1928
SOROZABAL	BIGARREN KALEZ KALE	1928
GURIDI	AMAYA	1929
GURIDI	CANTO DE ARRIEROS	1929

C. de las Cuevasek egina 1996. urtean

Ikus daitekenez, euskal konpositoreen lanak ugariak izan dira etapa honetan. Egileen artean, izen handiko konpositoreak ikusten ditugu. Guzti horien artean, Esnaolak ere bere eskaintza pertsonala egin zuen erreperetiorako, lan asko espreski Orfeoirako idatziz.

Aipatzen diren lan guzti horietan, genero guztiak lantzen dira: folklorea, polifonia, sinfoniko-korala, oratorioa eta opera.

Musikagile hauen artean batzuk oso harreman berezia izan zuten Orfeoiarekin, Pablo Sorozabalen kasuan bereziki.

D. Secundino Esnaola

(Zumarraga 1878-Donostia 1929)

Oso heziketa berezia izan zuen maisu honek musika mailan. Bere lehenengo ikasketak solfeokoak izan ziren, bere jaioterrian bertan Juan Lino de Leturia organistarekin³⁰. Honek, kantatzen ere erakutsi zion, eta tiple gisa aritu zen koroan. Hamalau urterekin Salamancara joan zen, Humanidadeseko ikasketak egitera apaiztegian. Bertako koruan aritu zen zuzendari gisa. Bere bizitzan zehar ahotsetarako musika landu zuen gehiengoan, bai koru zuzendari moduan, bai kantu irakasle moduan ere. Konpositore bezala, ahotsetarako obrak bereziki lantzen ditu. Polifonia eta folkloreako abesti ugari idatzi zuen, horietatik gehienak, Donostiako Orfeoiak kantatu eta grabatu dituenak bere historian zehar.

Donostiako Sociedad Coral-eko partaide ere izan zen, elkarte honen aktetan zuzendaritzako kide bezala azaltzen delarik.

1902. urtean, ekainean hasi zen Donostiako Orfeoiko zuzendaritza artistikoa eramaten. Bere lan honetan, 27 urtetan zehar oso lan erritmo berezia markatu zion Orfeoiari, erreperetoria zabalduz, lan berriak ikasiz eta lan mota diferenteak prestatuz: polifonia, folklore, oratorioa, opera eta zarzuela hain zuzen. Azkeneko lan mota hauean, Usandizagaren "Las golondrinas"(1914), "Mendi Mendiyan"(1911) eta "La Llama"(1918), Colinen "Maitena"(1913) eta Arrietaren "Marina"(1907) aipagarriak ditugu.

Beste lan motetan ere, izen garrantzitsuak aipa ditzakegu: Donostia, Almandoz eta Otaño, besteak beste. Formatu aldetik oso lan interesgarriak ditugu, sinfoniko-koral modukoak,

29. Esnaola, Gorostidi, Ayestaran eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

30. GOROSTIDI, J.: *Secundino Esnaola. Su biografía y labor artística*, San Sebastián, Imp. Leizaola 1931, 24 pp.

Guridiren “Eusko Irudiak”, eta Sorozabalek idatzitako “Kalez kale” (1926) eta “Bigarren Kalez kale” (1928). Azkeneko obra hauetan ahotsak txistuekin batera entzun daitezke, oso lan era-kargarriak osatuz.

Esnaolak, Orfeoiko bazkide abeslarien ezaugarriak ere aldatu zituen ahots nahasietako partiturak prestatu behar zituztenean. Lehenengo momentuan umeeekin aritu zen, 1909. urtean, eta geroxeago 1910. urtean neskekin.

Euskal musikari helduz, lehen aipatu dugun bezalaxe, musika honetan mota guztietako obrak lantzen dira. Esnaolak berak idatzitako zenbait lan polifonia eta folkloreakoak ziren. Lan hauetan gizonezkoen ahotsetan lantzeko era, asko baloratzekoa da, ahots txurietan berriz oso linea melodiko erraza eta arina idazten baitu. Testuari helduz, garapen melodikorako oso tra-taera erritmiko ona ematen dio konposizioari. Armonia aldetik oso estilo tradizionala azaltzen du.

Pablo Sorozabal Mariezkurrena

(Donostia 1897-Madril 1988)

Musikari honek harreman handia izan zuen Esnaolarekin. Umea zela, Orfeoian sartu zen 1912. urtean. Urte askotan zehar, mantendu zuen harremana Orfeoiarekin, lehen aipatutako Esnaola maisuarekin, eta gero Gorostidirekin.

Esnaola maisua hil zenean, 1929. urtean, Sorozabal Alemanian zegoen, lortutako beka batekin musika ikasten. Donostiako Orfeoiko zuzendaritza batzordeak, Orfeoiaren zuzendaritza artistikoa eskaini zion, baina berak beste helburu profesionalak zituenenez, 1930. urtean, Orfeoiak beste zuzendari bat aurkitu arte, lagundu egin zuen bakarrik.

Donostiako Orfeoiak beti lagundu zuen Sorozabalen lan berriak zabaltzen, musikoak berak aipatzen duen bezalaxe bere memorietan:

‘También mis coros vascos que había estrenado el maestro Esnaola al frente del O.D. había tenido mucho éxito’³¹

“En estos conciertos pude dar a conocer mis obras sinfónicas para orquesta y también la suite Vasca para coro y orquesta, ya que el maestro Esnaola con su gran O.D. también se prestó a colaborar a mi favor.”³²

“El O.D. por aquellos tiempos, en verano, solía actuar con bastante frecuencia en el kiosko del Bulevar. Contaba con un repertorio muy selecto de coros vascos de Usandizaga, Guridi, el P. Donosti, etc. que la gente aplaudía mucho, pero casi todas estas canciones eran de carácter lánguido, sentimental, romántico y siempre, infaliblemente, al terminar el programa, la gente, a gritos, pedía que le cantaran una famosa jota navarra muy efectista, y, aunque a Esnaola esa jota no le hacía gracia, no tenía más remedio que cantarla

Contaba esto una noche en “Olagorra”. Le prometí a Esnaola componer un coro vasco que tuviese tanto brio y tanta fuerza o más que la dichosa jota que le traía a mal traer.

-Si consigues eso te tendríamos que hacer un monumento -me dijo Esnaola.

31. Sorozábal, P. (1986): *Mi vida y mi obra*, Madrid, Fundación BEX, 116 or.

32. Sorozábal, Op. Cit, Pág 106

En septiembre volví a Leipzig y me puse a trabajar y surgió la idea de hacer una obra para coro y txistus que fuese alegre y bulliciosa a la vez que muy vasca, Y así compuse mi 'Gabiltzan kalez kale'...Mi 'Kalez kale' desplazó a la jota y desde que se estrenó la gente pedía a gritos que se ejecutase en todos los conciertos.de tanto oirla iba perdiendo fuerza y tuve que escribir otro 'Bigarren Kalez Kale' que también gustó muchísimo"³³.

1930-1968: GOROSTIDI MAISUAREN ETAPA

Etapá honek, orokorrean, Esnaola maisuaren hildo beretik jarraitzen du, bereziki zarzuela landuz. Orfeoia berak prestatzen zituen bere programak, kontzertu moten artean zarzuelakoak ospe handikoak izanik. Ekitaldi hauek prestatzeko, Orfeoia bere bazkideen artean behar ziren adina elementu zeuzkan: abeslari bakarlariak, korua, dantzariak, jostunak, arotzak, etab. Zarzuela hauekin, "Semanas líricas" (1933an izan zen lehenengoa) izeneko aste musikalako programak osatzen ziren.

Euskal konpositoreei dagokienez, aurreneko etapakoak azaltzen dira erreperitorioan, eta beste izen berri batzu eransten zaizkio zerrendari: Gorosarri, Gonzalez Bastida, Goyenechea, Olaizola eta Zubizarreta folkloreko abestiekin, eta oratorio lanekin Escuderoen "Illeta"(1955) eta Garbizuren "Gure meza"(1966) lanekin.

4. Taula

Donostiako Orfeoia lehen aldiz emandako euskal musika lanak Gorostidi maisuaren etapan

ESNAOLA	EUSKO BAKUNTZA	1930
GOROSARRI	IDIARENA	1930
GOROSTIDI	ATEA, TAN, TAN	1930
GOROSTIDI	NAROTASUN	1930
IRURETAGOYENA	BIRI BIRI	1930
SOROZABAL	ADAR NAGUSIEN	1930
SOROZABAL	AMETSETAN	1930
SOROZABAL	DONOSTIA FANDANGO	1930
SOROZABAL	EGUZKIAREN ARGIZPI PEAN	1930
SOROZABAL	NERE MAITE POLITA	1930
SOROZABAL	OTZ ETA IXILTSU	1930
SOROZABAL	ZORAGARRIA	1930
SOROZABAL	ZURE MOSUAN	1930
URTEAGA-ANSORENA	TXISTULARIA-ERTILARI	1930
ALMANDOZ	PUERI HEBRAEORUM	1931
ESNAOLA	ZUREGATIK	1931
GOICOECHEA	CHRISTUS FACTUS EST	1931

33. Sorozábal, Op. Cit, Pág 107-108

GOYENECHEA	LA CLARA	1931
URTEAGA	AVE MARIA	1931
URUÑUELA	AGUR MARIA	1931
ALMANDOZ	URRUNDIK	1932
DONOSTIA	PRELUDIOS VASCOS	1932
GOROSTIDI	MENDIKO ABESTIAK	1932
GURIDI	EUSKO IRUDIAK	1932
IRIGARAY	CUANDO VIENES DEL CAMPO	1932
OLAIZOLA	ETXEKO JAUN. ZEZENA DATOR ARKUPETIK	1932
PEÑA Y GOÑI	VASCONIA	1932
URTEAGA	GURE ABESTIAK	1932
USANDIZAGA	ORRA MARI DOMINGUI	1932
GURIDI	EL CASERIO	1933
SANTESTEBAN	COR-MUNDUM	1933
SOROZABAL	KATIUSKA	1933
ALMANDOZ	SALMO 109	1934
ARTOLA	COSACOS DE DON.. PIO	1934
ERAUSQUIN	AITONA	1934
GOROSTIDI	IRADA	1934
SOROZABAL	CONTRAPAS	1934
URTEAGA	TOTA PULCHRA EST MARIA	1934
ZUBIZARRETA	AGUR ENE MAITIA	1935
LAZCANO	EZKONDU NINTZANIAN	1936
LAZCANO	LILI BAT	1936
COTARELO	BANDERA BANDERITA	1937
COTARELO	EL CAUDILLO	1937
COTARELO	SOY VOLUNTARIO ESPAÑOL	1937
OTAÑO	FRANCO, FRANCO	1937
OTAÑO	HIMNO NACIONAL ESPAÑOL	1937
OTAÑO	MARCHA ORIAMENDI	1937
OTAÑO	ORIAMENDI	1937
OTAÑO	SUENA EL CLARIN	1937
OTAÑO	TRES CORTES ARMARA EL REY	1937
OTAÑO	VIVA ESPAÑA	1937
PAGOLA	VIVA LA RADIO DE CAMPAÑA	1937
UGARTE	QUE ALEGRIA EN LA TIERRA	1937
USANDIZAGA	CANCIÓNDE BEÑAT MARDO	1937

USANDIZAGA	EL PETIRROJO	1937
USANDIZAGA	NOCHE DE NAVIDAD	1937
URTEAGA	DOMINE QUANDO VENERIS	1938
URTEAGA	LIBERAME	1938
USANDIZAGA R	ANTON SE FUE A LA HABANA	1938
USANDIZAGA R	CANCION DE NIÑAS	1938
ALMANDOZ	LEJANIA	1939
URTEAGA	CUM APPROPINQUARET	1939
URTEAGA	DOMINE SALVA NO	1939
URTEAGA	QUANDO VENERIS	1939
URTEAGA	UNA PLEGARIA	1939
USANDIZAGA	LOS REYES MAGOS	1939
USANDIZAGA R	A MI BELLA INGRATA	1939
USANDIZAGA R	MAÑANICA DE SAN JUAN	1939
USANDIZAGA R	NO SON UNAS TODAS LAS MUJERES	1939
USANDIZAGA R	VETE AMOR, VETE	1939
GLEZ BASTIDA	LA VIRGEN DE PIEDRA	1940
USANDIZAGA R	LA CAPA DEL DIABLO	1940
ALMANDOZ	MELANCOLIA	1941
USANDIZAGA R	MARCHA DEL ORFEON	1941
FUENTECILLA	A BELEN VAMOS YA	1942
FUENTECILLA	NIÑO REY DEL CIELO	1942
FUENTECILLA	NOCHECILLA DE NIEVE Y FRIO	1942
FUENTECILLA	VENID A BELEN	1942
GOYENECHEA	EL CHANGARRO	1943
URTEAGA	URRUNDIC	1943
ITURRALDE	LA MELODIA DE BORDA BERRI	1944
OTAÑO	MARCHA DE SAN IGNACIO	1944
GLEZ BASTIDA	GABON GABEAN	1945
GOICOECHEA	JERUSALEM	1945
GOROSARRI	MARITXU	1945
GUISASOLA	ATXIA MOTXIA	1945
BOROBIA	EL 12 DE OCTUBRE	1946
GUISASOLA	AI MUTILL	1947
GLEZ BASTIDA	POCHOLO	1949
IMAZ	ERROMERIAN	1949
BUSCA SAGASTIZABAL	CAMINA LA VIRGEN PURA	1953

DONOSTIA	OÑAZEZ	1953
SAEZ ADANA	NEA	1953
GLEZ BASTIDA	MISERERE	1954
GOICOECHEA	LAMENTACION	1954
ESCUDERO	ILLETA	1955
ECEIZABARRENA	ZORTZIKO	1960
LAZCANO	GUDA ZITALA	1960
GARBIZU	MISA BENEDICTA	1961
GARBIZU	GURE MEZA	1966
MADINA	AITA GUREA	1967

C. de las Cuevasek egina 1996. urtean

Eta honetan Orfeoiko kantarien artean inoiz baino konpositore gehiago aurkitzen ditugu, polifonia eta folklore lanetan:

- Ramón Iruretagoyena (Astigarraga 1898-Donostia 1958). Tenorea zen eta oso heziketa ona zeukan musika mailan. Esnaola maisua hil zenean, urte betez Orfeoiko zuzendariordeztza artistikoa eraman zuen.
- Bruno Imaz (Zaldibia 1897-Donostia 1972). Hau ere tenorea zen eta ensaioretan laguntzaile gisa aritzen zen pianoa jotzen.
- Cesar Fuentecilla. Orfeoiko bazkide honen berri, zuzendaritza batzarrean aurkitzen dugu 1946. eta 1947. urteetan. Ahotsetako lan ugari idatzi eta argitaratu zuen. Orfoiari errepertorioan landu eta grabatu zituen lan gehienak.
- Ramón Usandizaga (Donostia 1889-Donostia 1964). Orfoian bajo bezala aritu zen eta zuzendaritza batzarrean ere parte hartu zuen urte askotan zehar. Lanbide bezala Donostiako Udal kontserbatorioko Historia eta Estetika gaien katedraduna zen, eta hango orkestra sinfonikoa sortu eta zuzendu zuen. Orkestra honekin, kontzertu asko egin zituen Orfoiarekin batera.
- Luis Urteaga (Villafranca 1882-Donostia 1960). 1940. urtean Orfoian sartu zen eta Gorostidi maisuaren laguntzailea izan zen Orfoiko abeslarien prestakuntzan.
- Juan Gorostidi (Donostia 1901-Donostia 1968). 1912. urtean sartu zen Orfoian, eta 1930. urtean zuzendari artistikoa izendatu zuen. Ahotsetarako eta txisturako ere obra batzuk idatzi eta Orfoiaren errepertorioan sartu zituen.

Gorostidi, musikari bezala, Orfoiko zuzendaritza artistikoan zentratu zen. Esnaola maisuak lortutako maila mantendu zuen, abesbatzarekin errepertorioko lanak prestatuz eta korallistei kantu klaseak emanez. Horietako batzu, bakarlari gisa aritu ziren bai orfoiarekin, bai profesional mailan. Bere kolaboratzaileen artean, maila handiko musikariak zituen: Imaz, Urteaga eta Usandizaga besteak beste.

Bere garaiko euskal konpositoreekin, harreman handia izan zuen, eta errepertorioan lan berri batzuk gehitu zituen polifonia, folklore eta oratorio motatakoak.

1969-1986: AYESTARAN MAISUAREN ETAPA

Orfeoiak lantzen duen errepertorioaren ezaugarriak, aldatu egiten dira etapa honetan. Berez lan sinfoniko-koralak, gero eta gehiago lantzen dira, polifonia eta folkloreko programak gero eta gutxiago aurkeztuz.

Garaiko euskal konpositoreen lan berri ugari prestatzen da: Aldave, Bello Portu, Ondarra, Oñatibia eta Garbizu folkloreko obrak besteak beste.

Aurreneko garaiko egileen artean, Donostia eta Eslava aurkitzen ditugu oratorioko lanetan.

5. Taula

Donostiako Orfeoiak lehen aldiz emandako euskal musika lanak Ayestaran maisuaren etapan

IRUARIZAGA	ITXASOAN	1972
GARBIZU	HIMNO SAN ANDRES	1975
ESLAVA	MISA	1978
OLAIZOLA	AGUR JAUNAK ³⁴	1978
OÑATIBIA	AUNITZ URTEZ	1978
BELLO PORTU	LLANTO POR MARTIN ZALACAIN	1979
BELLO PORTU	SOULE ³⁵	1979
GARBIZU	AITAK SEMEARI	1979
GARBIZU	AURTXO TXIKIA	1979
GARBIZU	BELTZARANA	1979
GARBIZU	ERREGIAK DATOZ	1979
GARBIZU	GABONETAN	1979
GARBIZU	KAIA BARRENEAN	1979
GARBIZU	KUKU	1979
GARBIZU	LO, TA , LO	1979
GARBIZU	SEASKA ONDOAN	1979
GARBIZU	ZUGANA MANUELA	1979
GARBIZU	ZURE BESOETAN	1979
MOCOROA	ERROTAZAIA	1979
ONDARRA	GUZIEK TTUNTUN	1979
SABADIE	DANTZA DANTZARI	1979
DONOSTIA	BILI BILI BONBOLO	1980
DONOSTIA	ITSASOA	1980

34. Gorostidi, Ayestaran eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

35. Ayestaran eta Sainz maisuek grabatu dute abesti hau.

DONOSTIA	O JESU MI DULCISIME	1980
GARBIZU	FESTARA	1980
BELLO PORTU	IPARRAGUIRRE:	1981
GOROSARRI	GERNIKAKO ARBOLA	1981
ESCUDERO	ZIGOR	1984
ALDAVE	EL CRISTO IBERICO	1985
ANCHIETA	O BONE JESU	1985
DONOSTIA	MISA PRO-DEFUNCTIS	1986

C. de las Cuevasek egina 1996. urtean

Zerrenda honetan azaltzen diren lan gehienak, prestatu eta grabatu ziren arren, gero ez ziren ohiko errepertorioan mantendu.

1987-2000: SAINZ MAISUAREN ETAPA

Euskal konpositore eta obra berri gutxiago agertzen dira etapa honetan. Euskal konpositoreekin batera sartzan ditugu, kanpoko musikagileak euskal abestiak idatzi dituztelako. Adibidez Garcia Abril, bereziki kontratatua izan zen Donostiako Orfeoiaren medeurrenerako "Lur kantak", euskal testu ezberdinetan oinarriturik lana idazteko.

6. Taula

Donostiako Orfeoiak lehen aldiz emandako euskal musika lanak Sainz maisuaren etapan

MOCOROA	NEURE MAITENA	1987
ANCHIETA	MISA SINE NOMINE: KIRIE,BENEDICTUS, AGNUS	1988
BUSTO	KONDAIRAREN IHAUTERIAN	1988
ARREGUI	GURE DANTZA	1989
ARAGÜES	CHRISTMAS SUITE	1990
ARAGÜES	NAVIDAD	1990
SOROZABAL	LA TABERNERA DEL PUERTO (EN UN PAIS DE FABULA)	1990
SOROZABAL	MAITE	1990
BUSTO	AVE MARIA	1991
GARBIZU	HALTZAK EZ DU BIHOTZIK	1991
GURIDI	ASI CANTAN LOS CHICOS	1992
OLAIZOLA	AURTZO SEASKAN	1992
PEÑAFLOIDA	MISERERE	1992
PEÑAFLOIDA	VIA CRUCIS	1992

ESCUADERO	IZAR EDERRA	1995
GARBIZU	ASIKO NAZ	1995
URUÑUELA	MAITIA NUN ZIRA?	1995
GARCIA ABRIL	LUR KANTAK	1997

C. de las Cuevas egina 1997. urtean

KONPOSIZIO LEHIAKETAK DONOSTIAKO ORFEOIAN

Donostiako Orfeoiaren historian zehar, bi aldiz egin dira musika konposizio leihaketak, lehenengoa 1899. urtean Oñate maisuaren zuzendaritzapean, eta bigarrena 1935. urtean Gorostidirekin.

1899. urteko konposizio leihaketa

Leihaketa honi buruz garaiko egunkarietan eta Orfeoiaren akta liburuetan aurkitu dugu informazioa.

La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 5.060 zka, 1899/7/6, 2/1.

“ORFEON DONOSTIARRA. En la sesión celebrada el martes por la junta directiva del Orfeón donostiarra, quedaron aprobadas las bases para el primer concurso musical que ha de celebrar dicha sociedad.

El tema escogido ha sido un coro a cuatro voces de hombres con acompañamiento de orquesta.

El certamen se verificará el mes de Noviembre próximo.”

Geroxeago ere beste berri bat aurkitu dugu:

‘ORFEON DONOSTIARRA. Al primer certamen musical organizado por el “Orfeón Donostiarra”, se han presentado las composiciones que a continuación expresamos:

“Himno al dulce nombre de María”, Lema Hojitas para María

“Canto a la Primavera”. Lema; La Primavera alegra el espíritu.

“Euskal Aritzeri”. Lema; Virtud, Orden y Justicia

“Redención” Cantata. Lema; Llegará

“Voces del bosque” Idilio. Lema; Natura

“Iberia” Cantata. Lema; ¿Despertará el león?

“Himno al trabajo”. Lema; ¡Bendito sea el trabajo!

“La bilbilitana” jota

Dichas composiciones han sido entregadas para su examen al jurado compuesto, como es sabido, por los maestros D. José Santesteban (presidente), D. José Rodoreda y D. Miguel Oñate.”³⁶

36. La Voz de Guipúzcoa. Diario Republicano, 5.184 zka, 1899/11/7, 2/2.

Informazio honetan, egileen izenak ez dira aipatzen, eta abesti batean bakarrik ikusten dugu letra euskeraz. Leihaketaren emaitza, Orfeoiaren 1897-1904 Akta Liburuan azaltzen da:

“..resultó que el Jurado consideraba que el 1^{er} Premio (una arpa de plata y título de Socio Honorario) debía adjudicarse a la obra titulada ‘Canto á la primavera’,.....recomendando para un premio extraordinario,...á la composición ‘Himno al Trabajo’

[se acordó] por unanimidad ejecutar el coro ‘Canto á la Primavera’ en el próximo concierto a beneficio del Orfeón, retrasando para ello lo necesario la fecha de dicho concierto”³⁷

1935. urteko leihaketa

Donostiako Orfeoiko Historia artxibategian aurkitu ditugu datuak. Bertan, 1935eko apirilean “Jurado del Concurso de Coros Vascos” eri zuzenduriko hainbat eskutitz ikusi ahal izan dugu. Kasu honetan, epaimahaia Beltran Pagola, Juan Urteaga, Roman Oyarzabal eta Juan Gorostidik osatu zuten.

Leihaketaren saria konposizio eta egile hauei eman zitzaizen:

“ *Zein ote da*” de Eduardo Gorosarri

“Salut als cantaires vascos” de J. B. Lambert

“*Gabon Gabean*” de J. M. González Bastida

Orfeoiak obra hauek 1935. urtearen bukaeran izandako kontzertu batetan kantatu zituen.

DONOSTIAKO ORFEOIA ETA EUSKAL MUSIKAKO GRABAZIOAK

Orain arte aipatutako euskal musika erreperatorioko obra asko dauzka grabatuak Donostiako Orfeoiak. Esnaola jaunarekin 1927. urtean hasi zen bere lehenengo grabazioak egiten, eta Gorostidi maisuarekin ere lan ugari grabatu zuen. Gero, Ayestaran maisuarekin folklore eta oratorioko euskal lanak grabatu zituen, bai publikoarentzako argitaratu zirenak³⁸, baita, Orfeoiko Audio artxibategian gordetzen direnak ere.

Egindako grabazio hauekin oso entzunaldi interesgarriak egin daitezke, ahots estiloak eta kantatzeko modu desberdinak konparatzeko hain zuzen ere. Ehun urte hauetan zehar ere zuzentzeko estiloak ikus daitezke, abesti bera, Esnaola, Gorostidi, Ayestaran eta Sainz etapatan grabaturik aurkitu daitezkeelarik³⁹.

37. D.O. Akta liburua. Akta 60 zka, 1899. azaroak 13.

38. BAGÜES, J. (koord.) eta LANDABEREA, J. (egilea): *Donostiako Orfeoiaren Diskografia*, Erretereria 1997, Ed. Eresbil.

39. Abesti hauek aurreko tauletan asterisko batekin markatuak daude.